



2025

korrika *æk*
KULTUR
SORKUNTZA
BEKA

AEK EUSKARAZ KOOP., beste hainbat arloekin batera, euskal kulturaren sustapena du xede, betiere gure hizkuntzaren berreskurapena eta normalizazioa lortzeko asmoz. KORRIKA bera, eta horren barnean KORRIKA Kulturala, AEKren xede eta jardueraren adibide bikainak ditugu. Bigarrenari esker, AEKk kalitate handiko kultur eskaintza egiten dio Euskal Herriari, euskal kulturaren askotariko adierazpideak bazter guztietara eramanez edo/eta AEKren baliabide apurrei ahalik eta atarramenturik handiena ateraz. Ildo beretik, beste ekarpen bat egin nahi diote AEKk eta KORRIKAK euskal kulturari.

AEK EUSKARAZ KOOP., euskara eta euskal kultura bultzatzeko xedez, "KORRIKA-AEK KULTUR SORKUNTZARAKO BEKA" izeneko deialdia egingo du, bi urtean behin; hauexek dira oinarriak:



OINARRIAK

01

Bekaren xedea:

- KORRIKA Kulturalean, sormen-lan bat plazaratzea, euskal kulturatik sortutako ekoizpenak bultzatzearen. Beka honen bidez, KORRIKA Kulturalean ardatz izango den ekitaldi nagusia taxutu nahi dugu; era berean, euskal sortzaileei bultzada emango diegu, eta lagunduko dugu KORRIKA Kulturalean zein bestelako kultur ekimenetan jendaurrean aurkezteko lanak sortzen.
- KORRIKA Kulturalean barruan, eta hark iraun bitartean, sormen-lan berri bat osorik ekoiztea eta gauzatzea.
- Bekaren xede den sormen-lan mota: diziplina anitz edo bakarra bil dezake, baina emanaldiak agertoki edo plazetan aurkezteko modukoa izan behar du.

02

Bekaz lagunduriko sormen-lana ekoizteaz gain, gutxienez 5 eta gehienez 50 ikuskizun/aurkezpen egingo dira, 2027ko azarotik aurrera eta 25. KORRIKak iraun bitartean.

03

Euskaraz sortutako proiektuak izan behar dira, inon argitaratu gabeak, edozein izanda ere egilearen sortetria, bizilekua, esperientzia edo joera (betiere 18 urtetik gorakoa baldin bada) baita lanaren gaia ere.

04

Sortzaile bakoitzak bi proiektu baino ezin izango ditu aurkeztu KORRIKA-AEK KULTUR SORKUNTZARAKO BEKARA.

05

Bekaren zenbatekoa eta ordainketa

23.000 eurokoa izango da; horietatik, zuzenbidearen arabera zerga-atxikipenak kenduko dira, zeinak Herri Ogasunera bideratuko diren.

Onuradunak honela jasoko du beka:

- % 40, epaimahaiaren erabakia jakin eta behin betiko proiektua gauzatzeko kontratua izenpetu ostean.
- % 10, behin betiko proiektua laburbiltzeko lehenengo txostena helarazitakoan.
- % 10, bigarren txostena helarazitakoan.
- % 40, behin betiko proiektua aurkeztu eta onespena jasotakoan.

Bekadunak kontratua sinatuko du AEKrekin, eta une horretan jasoko du bekaren lehenengo ordainketa. Kontratuaren arabera, amaierako proiektua zehaztutako epean aurkeztuko du, eta AEKK konpromisoa hartuko du lan saridunaren aurkezpenak egiteko (gutxienez 5, eta gehienez 50). Lehiakide guztiek kontratuko baldintzen kopia bana jaso ahal izango dute AEKren bulegoetan; hartara, ezingo dute esan haien berri izan ez zutenik.

Bekadunak bermatu beharko du badituela 5etik 50 bitarteko ikuskizun/aurkezpen egin ahal izateko baliabide nahikoak.

Kontratua eta kontratuaren klausulak emailaz igorriko zaizkio bekadunari, hark jakin dezan zeintzuk diren bere bete-beharrak.

Accesitik emango balitz, haren zenbatekoa epaimahaiak erabakiko du, proiektuaren kalitatearen eta egokitzat jotzen den aurkezpen-kopuruaren arabera.

06

Dokumentazioa

6.1 Parte-hartzaileek ondoko hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Lehenengo dokumentuan, sormen-lana aurkeztuko duen pertsona fisikoaren edo erakundearen helbidea, posta elektronikoa, telefono-zenbakia eta nortasun-agiriaren edo IFZren kopia, eskaneatuta.
- Bigarren dokumentuan, landu nahi den proiektuaren azalpena (2-5 orrialdetan, Times New Roman 12 letra-tipoaz eta 1,5eko lerroarteaz): ezaugarri nagusiak, euskarriak, egitura, luzera, estiloa eta egileak egoki deritzon beste edozein zehaztapen (iturriak, zergatiak, helburuak...).
- Proiektuaren azalpenak honako lau atal hauek izan beharko ditu ezinbestean:
 - a) Sinopsia: lana zertan den eta zer agertzen duen.
 - b) Xede artistikoa: goiko atalean azaldutakoa gauzatzeko erabiliko diren baliabide teknikoak.
 - c) Egilearen ustez, zergatik den interesgarria bere lana KORRIKA Kulturalerako.
 - d) Sormen-lanaren aurkezpenak egiteko beharrezko baldintza teknikoak proposamenenean zehaztuko dira, bai eta egileari bere proiektua hobeto azaltzeko lagungarria zaion beste edozein material osagarri ere (bideoak, argazkiak, etab.).
- Proiektuaren aurrekontua, honela zehaztuta:
 - a) Ekoizpen-aurrekontua: ikuskizunaren aurrekontu orokorra; hau da, osorik gauzatzeak nolako kostua eragingo duen.
 - b) Ekitaldi edo aurkezpen bakoitzaren kostua.
 - c) Ekitaldi bakoitzaren kostua, BEZa barne, ez da 5.000 eurotik gorakoa izango (atrezkoa, arropa, soldatak, garraioa eta dietak barne).
 - d) 5.000 € horietatik kanpo, hauek egongo dira: aretoen alokairua, soinu-eta argi-teknikariak, eta aretoak ez duen materiala alokatzea. Hala ere, dena izango da negoziagarria.

6.2 Beka-deialdian parte hartzeko dokumentazioa 2025eko apirilaren 4tik 2025ko urriaren 31ra bitartean aurkeztu beharko da, helbide elektroniko honetara bidalita: korrika@aek.eus

07

Epaimahaia

Jasotzen diren proiektu guztiak KORRIKA-AEKK izendaturiko epaimahai batek aztertuko ditu. Egitasmoaren gainean zalantzarik badu, eta egoki iritziz gero, egileei azalpenak eskatu ahal izango dizkie. Epaimahaikideen izenak sari-banaketa ekitaldian jakinaraziko dira.

Epaimahaiak lauzpabost lan aukeratuko ditu, eta haien egileek epaimahaikideen aurrean defendatu beharko dute nork berea. Lehen aukeraketaren berri e-postaz emango da; irabazlearen berri ekitalde baten bidez, 2026ko maiatzean. Hala, irabazleak urtebeteko epea izango du lana prestatzeko, eta 25. KORRIKA Kulturaleko egitarauaren barruan aurkeztuko da: 2027ko azarotik 2028ko apirilaren 2ra bitartean, hain zuzen.

Epaimahaiak beretzat gordeko du accesitak emateko eskubidea (ekoizpenari beka bat eman; ekoizpenari ez, baina bai ekitaldi bati; ekitaldi-kopuru txikiagoa antolatu...).

Epaimahaiak KORRIKA Kulturalerako propio pentsaturiko sormen-lanak lehenetsiko ditu. Epaimahaiak saririk ez banatzea ere erabaki dezake, lanen kalitatea eta plazaratzeko aukerak kontuan hartuta.

Epaimahaiaren erabakiak onartu egin beharko badira ere, azken hitza KORRIKA Kulturaleko batzordeak izango du.

08

Bekadunaren eskubideak eta betebeharrak

8.1 2027ko apirilera, bekaren xede den sormen-lana prest izatea.

8.2 KORRIKA-AEKren arduradunei bi txosten aurkeztea: bata 2026ko abendu aurretik eta bestea 2027eko otsaila baino lehen, epaimahaiak jakin dezan zertan diren proiektuaren garapena eta oinarrizko alderdiak.

8.3 Sormen-lana aurkezpenerako aurreikusitako kostuaren arabera gauzatu beharko da, zeina ezingo den izan 5.1.c atalean aipatu zenbatekoa baino handiagoa.

8.4 KORRIKA Kulturalaren antolatzaileek agindutako aurkezpenak egitea, gutxienez 5 eta gehienez 50 (edo gutxiago, bekaren ordeztasun emango balitz), 2027ko azarotik 2028ko apirilaren 2ra. Epealdi horretan egiten diren antzezpenen egile-eskubidea eta jabetza intelektuala 5.1.c atalean ezarritako aurrekontuen mugen barruan ordainduko dira.

8.5 Bukaerako proiektua egin bitartean, sariduna epaimahaikide batekin edo hainbatekin bilduko da, hala eskatuz gero, lanaren gaineko edo aurkezpena gauzatzeko sor litezkeen arazo teknikoak aztertu eta konpontzeko.

8.6 Saridunak aldaketak egin ahal izango ditu amaierako proiektuan, oinarrizko proiektuari dagokionez, soilik behin epaimahaiari horren berri eman eta haren onespena jaso ostean.

8.7 Kasu hauetan, saridunek bekaren zenbatekoa itzuli beharko dute:

Bekaren xede den amaierako proiektua zehaztutako epean aurkezten ez bada; edo, epaimahaiaren iritziz, oinarrizko proiektuarekin alderatuta alde nabarmena badago kalitateari, izaerari edo eskaintako edukiei dagokienez.

Hau da, hasierako zirriborroan aurkeztutakoarekin alderatuta aldea handia balitz edo kalitatea eskasagoa, edo proiektua ez balitz egokia, beka bertan behera gera liteke.

8.7.1 Hitzartutako sormen-lana egiten ez badute.

8.8 Aurkezpen bakoitzari dagokion ordainketa kontratuan zehaztu bezala egingo da.

8.9 Aurkezpenen datak, ordutegiak eta lekuak KORRIKA Kulturalaren antolatzaileek zehaztuko dituzte, saridunari aldeztu aurretik galdetuta.

8.10 KORRIKAren amaiera-data (2028ko apirilaren 2a) bitartean, saritutako lana KORRIKA Kulturalaren antolatzaileek erabakitzen dutenean baino ezingo da eskaini, eta lanaren ustiapen-eskubideak AEK izango ditu aipatu epealdian, baita irrati, zinema eta telebistarako grabazio- eta lagapen-eskubideak ere.

KORRIKA Kulturala amaitutakoan, AEK ez du lanaren gaineko inolako eskubiderik izango; hala ere, lanaren aurkezpen eta publizitatean AEKren laguntza izan duela aipatu beharko da, edo "KORRIKA-AEK KULTUR SORKUNTZARAKO BEKA" jaso duela.

8.11 Aurkeztutako proiektua ezin izango da beste ezein sari- edo beka-deialditar aurkeztu, AEK-KORRIKAren ebazpena jakin baino lehen edo haren baimen idatzia izan gabe.

AEK eta harekin batera KORRIKA Kulturalak edozelako dirulaguntza publiko edo pribatu eskatu edo jaso ahal izango dute, saritutako lanaren sustapena, publizitatea eta antzezpena finantzatzeko.

09

Beka-deialdian parte hartzeko, beren-bereri onartu behar dira haren oinarri guztiak, eta, era berean, saridunak amaierako proiektua eta aginduko zaizkion aurkezpenak egiteko kontratua hitzartu beharko du. Saridunari gutxienez 5 aurkezpen eta gehienez 50 bermatuko zaizkio, ondoko paragrafoan zehazturiko kasuan salbu.

Arrazoizko ustekabeak edo AEKri egotzi ezinezkoak direla-eta ezingo balitz KORRIKA Kulturalan aurreikusitako datetan egin, programatutako aurkezpenenak egiteko konpromisoa ez betetzeak ez luke inolako ondoriorik izango.

Hau da, AEKren esku ez dauden arrazoiengatik KORRIKA Kulturala bertan behera geratuko balitz, aurkezpena ere bertan behera geratuko litzateke.

10

"KORRIKA-AEK KULTUR SORKUNTZARAKO BEKA" deialdi honetan parte hartzeak haren oinarriak onartzea dakar berekin. Ezer ulertu ezean, antolatzaileek beharrezko azalpenak emango dituzte.